

‘STOP GAZAKO GENOZIDIOARI’ LANUZTE ETA MOBILIZAZINOAK DIRALA-ETA

Sindikatu eta gizarte mobimentuek ‘stop Gazako genozidioari! Nahikoa da!’ esateko urriaren 15erako antolatu dabezan greba eta mobilizazinoetan parte hartzera deitzen gaitue.

Karidade eta Zuzentasunerako Eleizbarrutiko Ordezkaritzako Langile Pastoralatzatik eta Bake eta Adiskidetzarako Batzordetik dei egiten deutsagu kristau alkarteari ekimen horren alde konprometitu daiten.

Gaur, sekula baino ozenago, *“bake armagabetu eta armagabetzailearen alde”* oihu egiten dogu Leon XIV.a aita santuagaz batera.

Eleizbarrutiko erakundeei lotutako pertsoneri eta, zehazki, hareekaz kontratu bidezko lotura dabenei, ekimenagaz bat egiteko dei egiten deutsegu. Baita bat egin gura daben lagun guztiei be.

Eta koherentziaz, alkartasun zeinua gehitu gura deutsagu jarduerari: lanuztea egin daien pertsoneri hortik eratorritako kosturik ez kentzeko eskatzen deutsagu eleizbarrutiarri; era berean, eleizbarrutiko erakunderen baten lan-kontratua daben pertsoneri dagokion kopurua Lurralde Santuko preminei erantzuteko funtsera zuzentzeko konpromisoa eskatzen deutsegu; diru hori Caritas Internationalis dalakoaren bidez bialduko da hara.

Bake-premina atzeraezinak galdera bihurtzen jaku: “Gehiegi ete da armak isildu dirala eta suntsitzeari eta hiltzeari itzi deustela amestea? Itzi deiogun Jubileuari «bakegileak» «Jainkoaren seme-alaba izango» dirala gogorarazoten (Mt 5, 9). (*Spes non confundit, ltxaropenak ez dau huts egiten* Jubileua deitzeko bulda).

Diruz laguntzeko konpromisoa beteteko, dirua kontu-zenbaki honetan sartuko dogu, “GAZA” kontzeptua jarrita: ES44 3035 0019 9401 9001 5422 (Jabea: Bilboko gotzaitegia, Laboral Kutxa).

Bilbo 2025/10/10

Bakea eta Adiskidetzea – Lan Mundua
Karidade eta Zuzentasunerako ordezkaritza – Bilboko Elizbarrutia

ANTE LA JORNADA DE PARO Y MOVILIZACIONES ¡STOP AL GENOCIDIO EN GAZA!

El 15 de octubre, sindicatos y movimientos sociales nos convocan a secundar una jornada de huelga y movilizaciones para decir ¡Stop al Genocidio en Gaza! ¡Basta ya!

Desde Pastoral Obrera y la Comisión de Paz y Reconciliación, de la Delegación de Caridad y Justicia de la Diócesis, hacemos un llamamiento a la Comunidad Cristiana a comprometerse con dicha iniciativa.

Hoy más que nunca clamamos con el papa León XIV *“por una paz desarmada y desarmante”*.

Animamos a sumarse a las personas vinculadas a los diferentes organismos diocesanos y, en concreto, a las que tienen una relación contractual con ellos. También a las personas particulares que así lo consideren.

Queremos, en coherencia, sumar un Gesto de Solidaridad: Solicitamos a la Diócesis que no detraiga los costes derivados de los paros laborales a las personas que los secunden; Asimismo, solicitamos a las personas con contrato laboral de un organismo diocesano el compromiso de aportar la cantidad correspondiente a un fondo común para atender las necesidades en Tierra Santa, que se hará llegar a través de Caritas Internationalis.

La exigencia de la Paz nos interpela: “¿Es demasiado soñar que las armas callen y dejen de causar destrucción y muerte? Dejemos que el Jubileo nos recuerde que los que «trabajan por la paz» podrán ser «llamados hijos de Dios» (Mt 5, 9).” (Bula jubilar *Spes non confundit, La esperanza no defrauda*)

Para contribuir con el compromiso económico, hacemos el ingreso en este número de cuenta indicando el concepto: “GAZA” ES44 3035 0019 9401 9001 5422 (Titular: Obispado de Bilbao Laboral Kutxa).

Bilbao 10/10/2025

Paz y Reconciliación – Pastoral Obrera
Delegación de Caridad y Justicia – Diócesis de Bilbao